

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

## 3283

*EBAZPENA, 2020ko ekainaren 30ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Honen bidez, «Global Symetry SL (Abella Legal)» erakundearen homologazioa baltzu-izen berrira egokitzen da, enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2010eko urtarrilaren 25eko Ebazpenaren bidez, enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa eman zitzaion «Global Symetry SL (Abella Legal)» erakundeari (otsailaren 22ko EHAA, 35. zk.).

Geroago erakundearen baltzu-izena aldatu da, eta izen berria «Abella Legal SL» da.

Ondorioz, aurkeztutako eskabidea eta aldaketa egiaztatzeko aurkeztu diren agiriak ikusita, hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2010eko urtarrilaren 25eko Ebazpenaren bidez «Global Symetry SL (Abella Legal)» erakundeari emandako homologazioa –enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko– egokitzea, alegia: aitorpen hori «Abella Legal SL» entitateari emandakotzat ulertu behar da, ondorio guztietarako.

### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Ebazpenaren aurka interesatuek berraztertzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean emango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 30a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.